



# BATEGINIK

EUSKARAK ETA IKASTOLAK  
MUGARIK EZ

Lerro hauek zure esku artean iristen direneko, amaiturik edo amaitzeaz izango da BATEGINIK kanpaina. Azken hilabete hauetan euskaldunok erne eta zurt erabili gaituen euskararen aldeko kanpaina garrantzitsua.

Hainbat egintza egin izan dira baztarretan «**Bai euskarari**» deituriko kanpaina egin zenetik, oraingo «**Bateginik**» hizkuntzaren aldeko egintzarik handienetakoa burutu den arte.

Oraingo honek aparteko garrantzia izan du, Komunikabideetan izan duen ohiartzuna dela bide, beste zenbait kasutan baino jende gehiagorengana heldu delako eta Euskal Herri osoko kultura eta politika alorretako erakunde gehienek eskuhartu dutelako.

Egintza honetan, euskararen egoera larria, eskubideak eta lurraldetasuna aldarrikatzeaz gainera, urrats bat eman nahi izan da mundurantz, Europarantz begira, hizkuntza gutxiagotuak hain bazterturik dituen estatuez osoturiko Europa izatetik herrien arteko izatera abiatu beharrean dugun Europarantz.

Egintza hau, bestalde, halakoetan gertatu ohi den bezala ez da kazkar bero batzuri, gau labur batetan, bat-batean, gogora etorritako ametsa. Egia esateko, azken urte hauetan euskararen

hedaketaren ardatz nagusi izan ditugun Ikastolen Federakundearen (gogoratu baino ez dauzkagu urtero egin ohi diren «**Araba euskaraz**», «**Kilometroak**», «**Herri Urrats**», «**Nafarroa Oinez**», «**Ibilaldia**») eta cuskal mugimendu ezberdinen koordinakunde dugun EKB-ren (Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eta Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakunde (AEK) ardatz nagusi dituela) artean gure inguruetan burutu izan diren zenbait egin-tzaren ondorio edo dugu. «Bai euskarari» deituriko kanpaiman hasi eta «**korrika**» alaitsuetan aurrebidea izan duen kanpaina.

Beraz, ekimen hau Ikastolen Federazioa eta EKB giltzarri direla, euskararen alde diharduten kolektibo ezberdinen laguntzaz eta alderdi politiko abertzaleen babesaz buruturiko euskararen aldeko Iharduketa Nagusia izan da. Ekintzen koordinaketa eta bideraketa, ostera, kultur munduan eragin handiko diren zenbait euskalzaleak osoturiko batzorde baten esku izan da.

Euskara, arrisku larrien bada ere, piztualdi sendo baten bidean dugu, zenbait erakunde publikoren lanari esker, jasotze lan bikain honetan dabilzen hiri erakunde eta elkarteez gain, eta hauen artean nazio mailako eta kalitatezko hezkuntzaren alternatiba den ikastolari esker.

Itxaropenezko etorkizuna dugu aurrean. Baina zure bultzada behar du.

Euskara zeuretzat duzulako, legun ezazu.

EUSKARA GURE HIZKUNTZA NAZIONALA.

IKASTOLA EUSKAL ESKOLA NAZIONALAREN BIDEAN.



Kanpainaren helburuak ere, oso ulergarriak izan dira. Gainbegirada batetan jasotekoak. Edonork jaso ahal izateko mezua. Jarraiko puntu hauetan laburbil dezakegu:

- «**Bateginik**», lehen eta behin, Nafarroa eta Iparraldeko ikastolei (zehazkiago esanda Seaska-ri eta Tutera eta Zangozako ikastolei) jasaten ari diren egoera larrian laguntzeko pentsatua izan dugu. Horretarako 200.000.000 pezeta bildu nahi izan dira. Bide batez, euskarak Herrialde bi horietan (Nafarroan zein Iparraldean) jasaten duen zapalkuntza salatu eta egoera aldatzea eskatu nahi izan dira.



## **100.000 ETA GEHIAGO GAZTE ARI DIRA EUSKARAZ ESKOLATZEN**

- «**Bateginik**», bigarrenik, euskarak oraindik, esan bezala, jasaten duen zapalkuntza salatu eta Europaren aurrean, 600.000 izenpe bilduz, euskararen ofizialtasuna eskatzeko bide izan nahi du. Era berean, Europako beste hizkuntza baztertuen aldeko deihadar edo garrasi sendo ere izan nahi du.
- «**Bateginik**» Euskal eskola publikoa (ezinbestekoa, euskarak gerora iraun dezan) bazterretan aldarrikatzen den

den une honetan, Ikastolek eramango bide gardenean zer nola jokatu ikasirik, egi bihurtzeko eskari ere bihurtu da. Ikastolentzat ere, bide berrirako ate edo bilakatu nahi da, aurrerantzean ere euskararen alde eten gabe jokatzera dei eginez.

- «**Bateginik**», bide batez, Udalei, Diputazioei eta gainerako agintariei bidalitako idazkiaren bidez, euskararen salbamenerako ezinbestekoak diren baldintzak jar ditzatela esijitzeko bide ere badugu. Euskarak bizirik irautea nahi dugula euskaldunok, gogoratu nahi zaie hori bideratzeko eta egi bihurtzeko ahalegin sendoak egitera bultzatuz. Euskararen ofizialtasuna eguneroko bizitzan agertzera dei egiten zaie, batipat.
- «**Bateginik**», era berean, gure herri osoa euskarak duen egoera larriaz kontutan jartzeko abiapuntu ere bada. Euskarak bizirik irauteko, hain zuzen ere, euskaldun guztion ahaleginak eta esfortzuak behar ditu. Gure ezaugarririk garrantzitsuena, euskaldun guztiok elkartzen eta «bategiten» gaituena arrisku bizian dugula kontutan hartzeak bizitzarako jokera baikorrak eta eragileak hartzera bultzatu behar gaitu.

Hainbat eta hainbat egintza burutu izan da Euskal Herrian zehar, «**Bateginik**» kanpaina honen inguruan. Euskal Herrian bizi garen guztiok euskarak jasaten duen egoera larriaz eta **bizi ala hilezko** burrukaz.

Karmel aldizkari honetako orrialde hauetan «**Bateginik**» kanpainari oihartzun egin nahi diogu irakurle guztioi, gaur eta bihar, orain eta gero, hitzez eta idatziz, egunez eta gauez euskarari toki zabal oparoa egin dezaiozuela eskatuz.

Bai, oso-osoan, «**Bateginik**» kanpainari. Bai, bihotz-bihotzez, euskarari. Bai, gogoz eta arimaz, Euskal Herri euskaldunari.

*Patxi Urbarren*